




Gorostitzako urtegia

Castaños generala jaio zen etxeko armarrria. Gorostitza

Burdinazko bihotzeko mendiak



PR-Bi 210 ibilbidea Bilbo Handiko eskualdetik pasatzen da, Nerbioi ibaiaren azken zatitik. Oso urbanizatua dagoen eskualdea da eta Bizkaiko biztanleria-dentsitate handiena duena da. Bere udalerrietariko batzuk Barakaldo, Basauri, Bilbo, Galdakao, Leioa, Portugalete eta Sestao dira. Nerbioi ibaiak bi ertzetan banatzen du. Banaketa hori ez da fisikoa bakarrik, bi ertzen garapenean ere eragin handia izan baitu.

Ibilbideak Barakaldoko biztanle gehien dituzten guneak atzean uzten ditu Castaños ibaiaren bidean gora egiteko Retuertotik

Gorostitza eta Regatorantz. Gorostitzako auzo horretan hasten eta amaitzen da ibilbidea. Aisialdirako berreskuratzen ari diren gune

horretan dago Castaños almirantearen jaiotzako baserria, armari handi batekin.

Ibilbidea atsegina da, urtegiaren ezkerreko aldean mantentzen da Mendierreka ere deitzen zaion Regato auzora iritsi arte. Hala urtegi hori nola Etxebarriakoa, behekoan ikusiko duguna, industria urez hornitzeko eraiki ziren. San Roeko eliza pasaturik, Territuko auzora igoko gara maldako bidetik. Bertan, etxemultzo bat zeharkatu ondoren, hareharri eta eukalipto-basoen artean Etxebarriako urtegirantz abiatuko gara. Auzo horretako biztanleak arduratu ziren urtetan zehar Sasiburu mendiko haize-burdinola mantentzeaz.

Ibilbidea berriki landatu diren basoetatik pasatzen



CASTAÑOS IBAIA



Etxebarriako urtegioko eustormako detailea

da eta zenbait momentutan Argalario mendia iren garatzen dira. Castaños ibaiaren ertzearaino jaitsi eta urtegitik igo ondoren, zubia gurutzatu beharko dugu gunerik goikoenean. Ibilbidea oinez egiteko erraza den pistak markatzen du. Hala eta guztiz ere, abenturazaleek urtegiaren euste-hormaren gunera iristen den eta ertzetik doan bide estua jarrai dezakete.

Arroletza, Sasiburu eta Apukoren hegaletatik behera egiten da Urkulo auzoraino. Bertan uraren indarra aprobetxatzen zuten errota batzuk egon ziren. Regatoko auzotik Gorostitzara itzuliko gara urtegiaren eskuineko ertzetik.

Castaños ibaia Eretza mendia iren hegalean sortzen da. Erriberako jatorrizko landaredia aldatua dago, koniferak landatu eta pistak prestatu direlako. Hala eta guztiz ere, oraindik ere ikusten dira haltzak, zumeak, hurritzak eta sasiakaziak.

Ibaiak Etxebarri urtegia zeharkatzen du. Regatoko ingurua Barakaldoko bizilagunek eta inguruko beste herri batzuetakoek aisialdirako erabiltzen dute. Beherago dago Gorostitzako urtegia. Hori pasa ondoren bizi da Eusko Jaurlaritzak espezierik "ahulena" bezala katalogaturiko arantzarraina.

FITXA TEKNIKOA

Iraupena: 3.25 h
 Longitudea: 10,85 km
 Zailtasuna Ertaina
 Desnibela: 130 m

IBILBIDEAREN SEINALEZTAPENA



Ibilbidearen jarraitasuna

Okerreko norabidea

Norabide aldaketa

PR Barakaldo 1h 20'

Gezia



Nola iritsi:

Barakaldotik Retuertora iritsi eta Regatorantz doan bidea hartu behar duzu.

TOPOGUÍA

	Distantzia (metroak)	Altitudea (metroak)	Deskribapena
1	0	20	Urtegia joateko oinezkoentzako bidea eta bidegorria Gorostiza auzoan hasten dira, Barakaldotik El Regatora doan bidetik, ezkerretara autobus geltoki baten ondoan.
2	650	40	
3	2.900	35	Bidegorria amaitu ondoren malda igo euste-hormaraino. Bide horrek urtegi guztia inguratzen du San Rokeko elizaraino.
4	3.900	150	Erreka gurutzatu gabe jarraitu pistari eta ezkerretara biratu Tellitu auzora igotzeko. Bidegurutze bat eta antzinako harrobi bat pasatuko dituzu. Gorago daude Tellitu auzoko baserriak. Ez da saihesbiderik hartu behar ezkerretara. Auzoa zeharkatuko dugu. Pista amaitzen den bidegurutzean ezkerretara hartuko dugu (eskuinekoa baserri baterantz doa). Basoan zehar jarraituko dugu, hareharriz betetako bidetik zehar. Langa bat eta ubide txiki bat zeharkatuko ditugu. Bidegurutzean, jaisten hasten den eskuinekoa hartuko dugu.



	Distantzia (metroak)	Altitudea (metroak)	Deskribapena
5	4.890	110	Gure ezker aldetik, iturri batera iritsiko gara, "Oto Erreka" (legur eta adreiluz egindako markoarekin) izenekora. Bidea eskuinetarantz hartzeko erreferentzia gisa balioko digu; bide hori basoan barrena sartzen da. 10 metro ingurura, hartu behar ez diren eukalipto artean, eskuinetara sartzen den bidea dago. 5 metro gorago, eskuinetara, Etxeberriako urtegia jaisteko hartu beharreko bidea dago. Urtegi etertzetik pasatuko gara, hainbat ubideren inguruan ibiliz.
6	7.190	100	Zementuzko pasabidea zeharkatuko dugu ubidearen gainean. Bidegurutze batekin egingo dugu topo. Eskuinekoak urtegia inguratuko du. Hori utzi, eta zuzen doana hartuko dugu. Maldan gora eramango gaituen eskuinekotik jarraituko dugu.
7	7.940	35	Bidea pista zabalago batera aterako da. Ubidearen dikarean altuerara joango gara. Aurrera jarraituko dugu bidegurutzerantz iritsi arte; beharantz doana hartuko dugu, asfaltzokoa.
8	10.840	20	Erreka auzora iritsiko gara. Hainbat etxetatik pasatuko gara, Errota Etxea eta Errota Alde etxetatik, esaterako. 600 metro egingo ditugu aurrera, San Roke elizarara iritsi arte. Zubia pasatu, eta Gorostizara itzuliko gara etorri garen bidetik.

